2024ko martxoan erregistratutako langabezia

2024ko martxoan 926 langabe gehiago erregistratu dira LANBIDEko bulegoetan, hau da, % 0,84ko gorakada; 111.471 langabe daude guztira. Martxoan hilabete arteko saldoaren bilakaera aldakorra izan da; saldoak negatibo zein positiboak izan dira. Hil honetan saldoa positiboa izan arren 2009tik bigarren igoera baxuena izan da.



	mar.-10	mar.-11	mar.-12	mar.-13	mar.-14	mar.-15	mar.-16	mar.-17	mar.-18	mar.-19	mar.-20	mar.-21	mar.-22	mar.-23	mar.-24
Saldoa	982	6.095	2.588	1.335	2.112	510	-619	-106	-71	-191	1.097	993	1.270	-310	926

Urte arteko saldoari dagokionez, lehen aldia da, 2021eko martxotik, urte arteko saldo positiboa dagoela. Aurtengo martxoan 2023ko martxoan baino 2.279 langabe gehiago daude, hau da, % 2,09 gehiago.

Gaur egun erregistratutako langabeen kopurua 2013ko martxoko maximo historikotik 67.860 pertsonatara dago, 2008an hasitako krisiaren unerik txarrena. Bestalde 40.516 langabe gehiago daude 2007ko ekainean baino, orduan erregistratu zen azken hamarkadetako minimo historikoa.

Beste martxoetako balio maximo eta minimoei dagokienez, 2024ko martxoan, 2013an baino 67.860 langabe gutxiago daude, eta 2007ko martxoan baino 31.314 langabe gehiago.



2024ko martxoan erregistratutako langabezia

• SEXUA

Sexuaren araberako datuak kontuan hartuta, bai gizonek zein emakumeek hileko eta urteko langabe kopuruetan gorakada izan dute. Hala ere, igoera-tasak zertxobait handiagoak dira gizonentzat bi aldietan. Hileko bilakaeran, emakumeek saldo positiboa izan dute, 422 pertsona gehiagorekin (+%0,66), eta gizonek 504 langabetu gehiagorekin (+%1,08). Urteko bilakaeran 1.021 gizon (%+2,21) eta 1.258 emakume (%+2,0) gehiago daude langabezian.

• ADINA

Datuek erakusten dutenez, langabeen kopuruak gora egin du adin-tarte guztietan; 30 urtetik beherakoek izan dute portaerarik txarrena, bai hileko datuetan (+531, +%2,93), bai urte arteko datuetan (+1.317, +%7,57). 30 urtetik beherakoak, hil honetako langabe berrien % 57,3 dira.

45 urtetik gorakoak dira, langabeen kopuruan igoera izan duten arren, adin-tarte guztietatik gutxien igo direnak, +70 pertsonako hileko saldo positiboarekin; gainera, saldo negatiboa dute 45-54 urtekoen artean (-144 pertsona). 30 eta 44 urte bitarteko pertsona langabeak 325 gehiago dira.

• JARDUERA EKONOMIKOA

Datua sektoreka aztertuz, industriak eta lehen sektoreak hileko eta urteko saldoan jaitsierak erakusten dituzten bitartean, langabeziak gora egin du eraikuntzako, zerbitzuen sektoreko eta aurreko enplegurik gabeko pertsonen artean (+441, +%3,24) hilean eta (+806, +%6,08) urtean. Zerbitzuen sektoreak izan du portaera txarrena zenbaki absolutuetan, bai hileko saldoan (+582), bai urteko saldoan (+1.750) ere.

Hilabete honetan, langabeziak behera egin du Egoitza-establezimenduetako asistentzia eta Txikizkako merkataritzarekin lotutako jardueretan. Aitzitik, aurreko enplegurik gabekoen artean, Hezkuntzan eta Enpleguarekin lotutako jardueretan igoerak izan dira langabe kopuruan, bai hilean eta bai urtean.

Iazko egoerarekin alderatuta, aurreko enplegurik ez duten pertsonek eta enpleguarekin lotutako jarduerek gora egin dute azken urtean. Bestalde, finantza-zerbitzuek eta administrazio publikoak aldi berean langabezia modu nabarmenagoan murriztea lortu duten jarduerak izan dira.

Xehetasun-maila handiagoz, azken hilabetean langabeziak behera gehien egin duen jarduerak hauek izan dira:

o	87 Egoitza-establezimenduetako laguntza	-128
o	47 Txikizkako merkataritza	-121
o	55 Ostatu-zerbitzuak	-87
o	84 Herri Administrazioa eta defentsa; Derrigorrezko Gizarte Segurantza	-47
o	64 Finantza-zerbitzuak,	-37
o	38 Hondakinak bildu, tratatu eta ezabatzea	-35

Erregistratutako langabeziaren igoeragatik nabarmentzen diren jarduerak:

o	85 Hezkuntza	347
o	Aurretik lanik izan gabe	297
o	78 Enpleguarekin lotutako jarduerak	266

o	61 Telekomunikazioak	105
o	59 Zinema-, bideo- eta soinu-jarduerak	86

• LANGABEZIAREN IRAUPENA

Hilabete honetan epe-luzeko langabezia 438 pertsonatan igo da. Iraupen laburrekoa 488 pertsonatan hazi da. Iraupen luzeko langabe kopuruak guztizkoaren % 50etik behera jarraitzen du; zehazki, % 48,8 dira. Termino erlatiboetan, urteko erreferentzian, gorakada gertatu da bai iraupen luzeko langabeen kolektiboan, +766 pertsona gutxiago (% 1,4ko hazkundea), baita iraupen laburreko langabeen kolektiboan ere, % 2,72 gehiago (+1.513 pertsona langabe).

Epe luzeko langabezia handiagoa da 44 urtetik gorakoen artean, emakumeen artean, eta Bizkaian bizi direnen artean. Azken hilabeteko bilakaera erlatibo onena emakumeei, 30 eta 44 urte arteko pertsonei eta Gipuzkoan edo Araban bizi diren pertsonei dagokie. Iazkoarekin alderatuta, nabarmentzekoa da iraupen luzeko langabeziaren hazkundea 30 urtetik beherakoen artean (+538 pertsona, % 11,6ko igoera); gizonen artean (+614 gizon, +% 2,9) eta Gipuzkoan bizi direnen artean (+410 pertsona, +% 3,2).

• LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Hil honetan, gora egin du langabeen kopuruak Gipuzkoan (+%1,83) eta Bizkaian (+427). Araban, berriz, 35 pertsona gutxiago daude egoera honetan (-%0,19).

Urte arteko saldoan, berriz ere, Bizkaia (+1.509, +%2,46) eta Gipuzkoa (+1.269,+%4,46) langabetu gehiagorekin, dira igoerarik handienak izan dituzten lurraldeak. Arabak, aldiz, urteko saldo negatiboa du: -499 langabe gutxiago (-%2,58).

EAEko hiru hiriburuetan langabeziak gora egin du, bai hilean, bai urtean, baina tasak aldatu egin dira hiriburuen artean. Bilbok izan ditu hazkunderik esanguratsuenak, bai hilean (+323, +%1,49) eta bai urtean (+661, +%3,10). Gasteizek hileko saldoan +98 eta Donostiak +38 langabe gehiago izan dituzte, eta urte arteko saldoan +97 eta +258 langabe, hurrenez hurren.

Martxoan erregistratutako langabezia-tasa handienak izan dituzten udalerriak Sestao (% 15,64), Amurrio (% 14,78), Lanestosa (% 14,78), Oion (% 14,44) eta Ortuella (% 14,31) izan dira.

• LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2024 martxoan, 35.904 langabek (aurreko hilean baino 287 gutxiago) langabezia-prestazioren bat jaso zuten. Gaur egun, langabeen % 32,2k langabezia-prestazioren bat jasotzeko eskubidea du. Langabeen % 18,0k (20.114 pertsona) kotizaziopeko prestazioa jasotzen dute. % 13,02k (14.511) langabezia subsidioren bat jasotzen dute. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak du babes handiena (% 34,8ko tasa), Araban % 30,3koa da eta Bizkaian % 31,6koa

Urtarrilaren aldean, langabeziagatiko estaldura-tasa 0,53 jaitsi da, eta iazko martxoaren aldean 1,16 puntu jaitsi da.

• JATORRIA

Langabe guztietatik 20.771 (% 18,6) atzerritarrak dira. Otsailaren aldean, langabeziak % 0,51 egin du gora atzerritar jatorriko pertsonen artean. Urte arteko bilakaeran atzerritar jatorriko langabeen kopuruak % 10,28 egin du gora, aldiz, bertakoen artean % 0,38 egin du behera.

Atzerriko langabeen % 32,6 Afrika iparraldetik datoz, % 27 Latinoamerikatik, % 15,7 Europako Esparru Ekonomikotik, % 11,6 Saharaz hegoaldeko Afrikatik eta % 6,3 Asiatik. Azken hilabetean langabezia gehien igo den jatorriak Europako Esparru Ekonomikoa (+40) eta Asia (+26) dira.

• IKASKETA MAILA

62.182 langabek, guztien % 55,8k, asko jota derrigorrezko ikasketak dituzte. Azken hilabetean, oinarrizko prestakuntza maila hau duten 308 pertsona gehiago daude langabezian, hau da, % 0,50 hazi da. Azken urtean, berriz, langabeziaren gorakada % 1,31koa izan da derrigorrezko ikasketak dituztenen artean (+804 pertsona).

Batxilergoa duten langabetuak langabe guztien % 7,9 dira. Azken hilabetean % 1,16 igo dira eta azken urtean, % 3,45eko gorakada izan dute.

Lanbide Heziketako ikasketak dituzten langabetuak 27.687 dira, guztizkoaren % 24,8. Hil honetan -175 pertsonako saldo negatiboa egon da eta iazko martxoarekin alderatuta, % 4,32 murriztu da.

Azkenik, % 11,5ek (12.782 pertsona) unibertsitate-ikasketak ditu. Ikasketa-maila hori duten langabetuak izan dute bilakaera okerrena hilabeteko saldoan (% 2,75ko hazkundea eta +342 pertsona; iazko datuekin alderatuta, berriz, portaera nahiko ona eduki dute (+34 pertsona eta % 0,27 gehiago).

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan langabezia % 1,21 murriztu da, 33.405 pertsona gutxiago, eta guztira 2.727.003 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, erregistratutako langabezia % 0,84 igo da. Nafarroan % 0,63 murriztu da, Errioxan % 0,64 jaitsi da, Kantabrian % 2,22 jaitsi eta Gaztela-Leonen % 2,27 murriztu. Katalunian % 0,57 jaitsi da, eta Madrilen % 0,23 igo.

Lan-eskatzaile langabeak 2024ko martxoan

	Mar-2024	Ots-2024	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	47.218	46.714	504	1,08
EMAKUMEZKOAK	64.253	63.831	422	0,66
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	18.714	18.183	531	2,92
GIZONEZKOAK	9.200	8.862	338	3,81
EMAKUMEZKOAK	9.514	9.321	193	2,07
25-44 URTE:				
GUZTIRA	32.185	31.860	325	1,02
GIZONEZKOAK	12.437	12.240	197	1,61
EMAKUMEZKOAK	19.748	19.620	128	0,65
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	60.572	60.502	70	0,12
GIZONEZKOAK	25.581	25.612	-31	-0,12
EMAKUMEZKOAK	34.991	34.890	101	0,29
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.101	2.105	-4	-0,19
INDUSTRIA	10.449	10.514	-65	-0,62
ERAIKUNTZA	6.260	6.144	116	1,89
ZERBITZUAK	78.294	77.712	582	0,75
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.367	14.070	297	2,11
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	18.867	18.902	-35	-0,19
BIZKAIA	62.905	62.478	427	0,68

GIPUZKOA	29.699	29.165	534	1,83
EAE	**111.471**	**110.545**	**926**	**0,84**

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bajo Bidasoa	3.911	10,3%	45	1,16	265	7,27
Oarsoaldea	3.430	9,2%	100	3,00	155	4,73
Donostia-S.Seb.	7.003	7,8%	38	0,55	258	3,83
Donost.Oeste	2.919	7,5%	63	2,21	18	0,62
Tolosaldea	1.868	7,7%	66	3,66	66	3,66
Urola Erdia	1.205	7,7%	50	4,33	94	8,46
Goiherri	1.764	8,1%	143	8,82	197	12,57
Alto Deba	2.350	7,7%	-12	-0,51	75	3,30
Bajo Deba	2.717	10,3%	19	0,70	81	3,07
Urola Garaia	1.079	8,8%	36	3,45	41	3,95
Urola Kosta	1.453	6,2%	-14	-0,95	19	1,32
GIPUZKOA	**29.699**	**8,3%**	**534**	**1,83**	**1.269**	**4,46**
Vitoria-Gasteiz	14.714	11,4%	98	0,67	97	0,66
Valle de Aiala	2.137	11,3%	-40	-1,84	-26	-1,20
Rioja Alavesa	595	10,4%	-29	-4,65	-8	-1,33
LLanada Alavesa	663	8,8%	-18	-2,64	-18	-2,64
Estrib. Gorbea	299	6,0%	5	1,70	1	0,34
Valles Alaveses	388	7,5%	-3	-0,77	-13	-3,24
Montaña Alavesa	113	6,9%	6	5,61	24	26,97
ARABA	**18.867**	**11,0%**	**-35**	**-0,19**	**-499**	**-2,58**
Gobela	4.343	8,4%	7	0,16	38	0,88
Txorierri	2.072	8,8%	3	0,14	18	0,88
Uribealdea	2.871	8,1%	30	1,06	70	2,50
Duranguesado	3.174	8,4%	63	2,03	60	1,93
Busturialdea	2.076	9,3%	2	0,10	94	4,74
Lea-Artibai	879	7,3%	-14	-1,57	-12	-1,35
Encartaciones	1.946	12,3%	11	0,57	59	3,13
Arratia-Zornotza	1.457	8,2%	12	0,83	93	6,82
Medio Nervion	1.296	9,7%	1	0,08	3	0,23
Bilbao	21.963	12,9%	323	1,49	661	3,10
Margen Izquierda	16.470	13,0%	5	0,03	415	2,58
Ibaizabal	4.312	10,5%	-20	-0,46	28	0,65
BIZKAIA	**62.905**	**11,0%**	**427**	**0,68**	**1.509**	**2,46**
CAPV	**111.471**	**10,1%**	**926**	**0,84**	**2.279**	**2,09**

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.